

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Luisa Zuloaga Garitaonandia

*Eibar,
Gipuzkoa
(1939)*

Aurkibidea



Biografia



Maria Luisa Zuloaga Garitaonandia Eibarren jaio zen eta Mirafloresen bizi izan zen gaztetan. Neskame bezala jardun zuen Eibarko familia dirudun baten etxean ezkondu zen arte. Geroztik, Barrena kalean bizi izan da. Azitaineko ermitarekin lotura estua du eta beste bi emakumerekin batera, serora lanak egiten ditu.

Zintak

EIB-700

- **Proiektua:** Eibarko ermitak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2020-10-15
- **Iraupena:** 115 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

EIB-735

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2022-05-26
- **Iraupena:** 97 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Donejakue bidea Azitaingo parrokiatik pasatzen zen.

- **Erref:** EIB-700/003
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Azitaingo ermitaren izena: Nuestra Señora de la Asunción. Ez dakite noizkoa izan daitekeen, baina Santiago Bidea bertatik pasatzen omen zen. San Martin ermitari buruz eta serora etxeari buruz hitz egiten dute.</p>

2. Azitaingo parrokia itxita egon zen gerraostean

- **Erref:** EIB-700/005
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

<p>Doroteo umea zenean, Azitaingo parrokia itxita zegoen. Gerraostean, Untzuetako jauregian zeuden presoak igandero jaisten zituzten Azitainera, meza entzutera. Ondoren, itxita egon zen urteetan.</p>

3. Azitaingo parrokiako abadeak gaur egun

- **Erref:** EIB-700/007
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:09:07. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Gaur egun, apaiz bakarra dago Azitaingo, Karmengo eta San Agustineko elizetarako. Apaiz gabe geratzeko beldurra daukate, gero eta fede gutxiago dagoela uste dute.</p>

4. Fedea; Azitaingo parrokiako abadeak

- **Erref:** EIB-700/008
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:13:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Ezkondutik aurretik, Maria Luisa anaiekin joaten zen goizeko zazpietako meza entzutera egunero. Anaiak gero ehizara joaten ziren. Sinismenari eta fedeari buruz hitz egiten du. Karmeldar Jose Luis eta Felix Bergara ekartzen ditu gogora: euskaldunak, beti laguntzeko prest eta sermoiak oso ondo azaltzen zituztenak.</p>

5. Azitaingo eliztarren borondatezko diru-laguntza

- **Erref:** EIB-700/009
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:13:39. **Bukatu:** 00:15:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Azitaingo parrokiaren jabea apezpikutza da. Eliza mantentzeko, bertako eliztarrek borondatezko kuota bat jartzen dute eta urtean behin balantzea bidaltzen da.</p>

6. Azitain parrokiako berriztapenen ordainketa

- **Erref:** EIB-700/011
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:18:06. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Teilatua orain dela urte batzuk berritu zen. Eliztarren artean ordaindu zuten eta gero apezpikutzari eskatu zioten dirulaguntza bat.</p>

7. Azitaingo parrokian lurperatzerik ez

- **Erref:** EIB-700/013
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Azitaingo parrokiak ez du aparteko lursailik. Felix Bergara abadeak antzina lurperatzeak egon zirela uste zuen, baina Doroteok ez du hori uste.</p>

8. San Anton egunean animaliak bedekatzaren ziren Azitaingo parrokian

- **Erref:** EIB-700/014
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:28:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Azitaingo abutzuko jaiak baserritarrek antolatzen dituzte: meza, herri-kirolak... 2013. urtera arte, San Anton eguna ospatzen zen urtarrilean. Animalien patroia denez, baserritarrek animaliak eta landareak eramaten zituzten eta, meza ostean, abadeak bedekatu egiten zituen. Meza ostean hamaiketako egoten zen.</p>

Transkripzioa

- Doroteo: Aquello sí. Ha tokatzen jako edificiuari, eliziari tokatzen jako hori.

Oin, partekuak... Esaten zebe elizianak ziala, baiña..

- Eta esan dozue, zera, ez? Ama birjiñian egunian izaten direla jaixak, ez?

- D.: Bai, bai. Aurten ez da ein, karo, aurten ezer be ez da ein ta.

- Aurten ez. Baiña orduan egunian izaten da? Jaixak.

- D.: Bai, bai. Ta organizatzen dabe, oin organizatzen dabe basarritarrak.

- Maria Luisa: Bai, baiña zer? Mezia ta..

- D.: Joe... Joe, mezia ta.

- M.L.: Ezebez! oin honek, pandemian zeraaittikan, ezebez.

- D.: Hori esan dou, oin ez.

- Baiña aurretikuetan?

- M. L.: Buenooo... Askoi!

- D.: Aizkoran ta harrijasotziak eta probak eta... Jai haundixa eitten da hore, Andra Mari egunian.

- M. L.: Andra Mari agostuan. Baiña lelengo eitten da San Anton, oin, eneruan.

- D.: Bueno, bai, bai.

- M. L.: San Anton de.. San An.. Bata da San Antonio eta bestia San Anton.

- Ander Urkia (biloba): San Anton, hamazazpitan.

- D.: Y San Antonio es trece de junio.

- A.: San Anton hamazazpitan.

- M. L.: Hori da San Antonio. Ta hau da San Anton.

- D.: Bai, hau da Sant Anton, "patrón de los animales".

- M. L.: Zelebratzen da...

- Eta ze eitten da?

- M. L.: Eneruan.

- D.: Ez dakit ze egun, ezin [neiketzu] esan.

- Mezia izango da, ez?

- M. L.: Bai.

- D.: Bai... baiña oin bai, ala?

- M. L.: Ez.

- D.: Don Felix zeguanian, bai.

- Bai. [...] izan da, orduan?

- M.L.: Oin... mezia beti, urtero ha mezia.

- D.: Bai?

- M. L.: Hombre.

- D.: San Anton egunian bai?

- M. L.: Hombre, oin honen zeronegaittikan ez.

- D.: Horregaittik ez, [...].

- M. L.: A! ez, ez. Bai, hori geratu zan...

- D.: Don Felix hil zanetik hor ez da ezer izan. Ez dot uste.

- Orduan, Don Felix noiz hil zan?

- D.: Lehen erromerixak-eta kristonak eittten zian San Anton egunian! buo!

- M.L.: 22 de febrero del trece.

- "Del 2013". Orduan, 2013ra arte San Anton egunez mezia ein da?

- D.: Mezia eta bedekazina, zerak eruatzen zittuen, igual txakurra edo katua edo konejua edo oillarra edo...

- M.L.: Hori be eruanda dao han.

- Orduan, sinisten dau zeozer.

- M.L.: Ha oindiokan han dao, salan han dao sikatuta. Neri gitxi falta jata sikatzeko, baiña oindio bizirik dao. Eta holan zertxo bat eruanda, polittaua erretratua...!

- Zer eruan zenduan?

- A.: Bonsai bat. Ez?

- M.L.: Bai.

- A! Eruan zenduan arbolia?

- M.L.: Bai, arbola bat.

- A.: Bai. Ta lehengusuak konejua edo ez dakit zer eruan eban.

- M.L.: Konejua.

- A.: Jonek.

- M.L.: Jonek konejua.

- D.: A! Ta Jonek be konejua ta..

- A.: Uste dot baietz.

- Eta ze izeten da? Bedeinkaziñua ze izeten zan? Don Felixek ze eitten zeban?

- D.: A, bueno, ba, ez dakit mezia hasi baiño lehen ala meza erdixan edo noiz izaten zan bedeinkaziñua... Mezia hasi aurretik?

- M.L.: Ez, gero, gero.

- D.: Gero,?Amaittu ta gero, ezta?

- M.L.: Gero, bai.

- D.: Bai, bai, errezon bat ein ta...

- Haren ostian zer eitten zeban? bedeinkatu zera? aittagureren bat edo?

- M.L.: Hiru bat ordu laren-edo izaten zan meziari eta gero han zera...
`Maria Ospitxal´, zelan da?

- D.: Ee, orduan ez zan, `Maria Ospitxal´-ta etortzen zian Andramarixetan, Marialui.

- M.L.: Eta zerian ez?

- D.: No, no.

- M.L.: Andramarixetan bakarrikan?

- D.: Txistua, tanboliña eta sagrarixuan.

- M.L.: Ondio bizi da hori, e!

- D.: Baai.

- M.L.: Eta ostantzian ez?

- D.: Keba, ez ez zeuan dirua.

- M.L.: Aurrekua, aurrekua.

- D.: [...] pagatzeko ez zeuan dirua, joe.

- M.L.: Aurrekua dantzan eitten zebe ya mezia amaittueran. Ta gero, urtendakuan, tabernia itxitta egoten zan, oin dauan... Bueno, oin be itxitta dao, baiña tabernia, urtero zeuana, haura itxi itten zan eta honek jaixetako zerak organiz... ipintzen zeban tabernatxo bat, mostradora.

- D.: Mostradora.

- M.L.: Eta honek basarritarrok eta...

- D.: Pintxuak-eta ipintzen zittuen ta...

- M.L.: Pintxuak eta gero dale que te pego. Eta han arrimatzen zan, mezetara ez, baiña han arrimatzen zan... ta pagauta, e.

- D.: Baiña ordainduta, e!

- M.L.: Bai, bai, pagauta.

- D.: Han ordaindu eitten zan.

- Bai, bai, bai bakoitzak beria, ez?

- D.: Bai, bai.

- M.L.: Baiña mezia mezia duan egoten zan.

- D.: Nik ez dot sekula pagau mezarik e! zuk pagau dozu, ala?

- M.L.: Ez zenduan ezer botatzen hara sestotxora?

- D.: Hori diferentia da, baiña pagau ez.

- M.L.: Pagau ez .

- D.: A, una cosa es... poltsan...

- M.L.: Nik ez dot esan pagatzen zanikan. Duan egoten zala.

- D.: Bai, bixar be bai, mezia beti duan dao.

- M.L.: Klaro! Baiña si hay esto... mecachis.

- Hurratu, txakur gehixau etorri, ezta?

- D.: Bai, joan Santakurutzera ta Santakurutzen mezia amaittutakuan zera duan egoten da, piskolabisa, pintxua ta ardaua eta sagardaua eta jo-ta

jentia... hau, mostradoretik alde ezin, gaiñera, jo-ta dale hantxe! Hartik ba bat edo bi ta alde beste batendako... baiña ostias.

9. Andramariaren jaiak Azitainen abuztuan eta irailean

- **Erref:** EIB-700/016
- **Iraupena:** 0:05:55. **Hasi:** 00:29:18. **Bukatu:** 00:35:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Andramariaren jaiak ospatzen dira abuztuan Azitainen urtero. Auzoan Espainiatik Eibarrera lanera etorritako jende asko bizi zen eta abuztuan herrira bueltatzen zirenez oporretan, jaiak irailean berriz ospatzeko eskaera egin zuten eta horrela mantendu da gaur egunera arte. Iraileko jaiak izan dira urteetan auzoko jai garrantzitsuenak. Txosnak, helduei omenaldiak, kontzertu handiak (Su Ta Gar), erromeriak, herri-bazkariak, lehiaketak... Jaiak Barrena kaleko parkera pasatu ziren, jende asko hurbiltzen zelako. 80. hamarkadan izan zuten jaiak garrantzi handiena, oso kontzertu jendetsuekin.</p>

10. Erromeriak asteburuetan, Maltzaga eta Azitainen

- **Erref:** EIB-700/017
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:35:13. **Bukatu:** 00:38:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Beraiek gazteak zirenean, ez zen erromeriarik egoten Azitaingo parrokian. Jai handirik ez zegoen, baina meza bai. Erromeria Maltzagan egiten zen igandero eta geroago Azitainen larunbatetan.</p>

11. Azitaingo "Behetarrak" elkarteak

- **Erref:** EIB-700/018
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:38:32. **Bukatu:** 00:40:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>80. hamarkadan, Azitain auzoko gazteek "Behetarrak" elkarteak sortu zuten, Udalari jaiak inguruko eskaerak egiteko.</p>

12. Azitaingo parrokian meza beti euskeraz

- **Erref:** EIB-700/019
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:40:05. **Bukatu:** 00:41:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Azitaingo parrokian meza euskaraz ematen da gehienetan. Afrikatik etorritako apaiza dago orain eta berak ere euskaraz ematen du meza. Oso pozik daude.</p>

13. Azitain parrokiako serorak

- **Erref:** EIB-700/020
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:41:03. **Bukatu:** 00:44:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Urte askoan Dolores "Txopengua" izan da Azitaingo parrokiako serora. Azken urteetan Maria Luisak beste bi emakumerekin egiten ditu lan horiek: elizan lagundu, loreak ipini, garbiketak...</p>

14. Azitaingo parrokia eta Felix Bergara abadea

- **Erref:** EIB-700/021
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:44:04. **Bukatu:** 00:47:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Jose Luis abadearen sermoiak oso gustuko zituzten, errealtateari buruz hitz egiten zutelako. Gero, Felix Bergara heldu zen, Beistegi Hermanos lantegiko bere lana utzi eta seminariora sartutakoa. BH-n izandako arazoak kontatzen ditu Doroteok, eta nola piztu zitzaion Felixi injustiziei aurre egiteko nahia. Felixek berritu eta biziberritu zuen Azitaingo parrokia.</p>

15. Azitaingo parrokiaren itxura kanpotik

- **Erref:** EIB-700/022
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:47:17. **Bukatu:** 00:48:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Azitaingo parrokia harrizkoa da eta aspaldi karearekin zuritzen zen. Gerora, harria bistan utzi zuten. Burdinezko hesi handi bat dauka elizak eta ur-bedeinkatu ontzia dago.</p>

16. Azitaingo parrokiako irudi eta elementuak

- **Erref:** EIB-700/024
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:50:28. **Bukatu:** 00:53:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Azitaingo parrokia barruan dauden irudi eta elementuei buruz hitz egiten dute: Jesukristoa, San Juanen erliebe bat, Ama birjina, aldarea eta bataio-ontzia. San Antonen irudiak duen luma apurtuta zegoenez, Doroteok aldatu egin zuen. Istorioa kontatzen du.</p>

17. Azitain parrokiako bizar bariko kristoaren irudia

- **Erref:** EIB-700/025
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:53:31. **Bukatu:** 00:57:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Azitaingo parrokian dago munduan ezagutzen diren hiru bizar gabeko kristoren irudietako bat. Bere egilea ezezaguna da. Irudia beti egon da aldarean kokatuta, egurrezko gurutze batean. Doroteok eta bere semeak handik kendu eta gaur egun dagoen lekuan jarri zuten, gurutzerik gabe. Zergatia kontatzen du.</p>

18. Mirariak eta sinesmenak

- **Erref:** EIB-700/026
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 00:57:34. **Bukatu:** 01:02:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Maria Luisak Jesusen gurutziltzaketaren istorioa kontatzen du eta mirariak zer diren eta zer ez diren eztabaidatzen dute. Maria Luisak istorio polit bat kontatzen du.

19. Azitaingo parrokian sakramentuak eta hiletak

- **Erref:** EIB-700/028
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:04:53. **Bukatu:** 01:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Azitaingo parrokian gaur egun ez da ez bataiorik ezta jaunartzerik ospatzen. Orain dela ez asko arte egiten ziren. Ezkontzak eta hileta-elizkizunak ospatzen dira, ordea.

20. Azitaingo parrokiako kanpaia; San Andres parrokiako hil kanpaiak

- **Erref:** EIB-700/029
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:06:47. **Bukatu:** 01:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Azitaingo parrokiako kanpaia elektrikoa da. Elizkizunetatik kanpo, ez dira gogoratzen hil-kanpaiak edo suteei buruz abisatzeko kanpaiak jotzen ote ziren. San Andres parrokiako hil-kanpaiak nolakoak ziren azaltzen dute. Ezberdinak ziren helduenak eta haurrenak.</p>

21. San Andres parrokiara, mantelina eta misalarekin

- **Erref:** EIB-700/030
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:08:50. **Bukatu:** 01:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Mantelina eta misala erabiltzen zituen Maria Luisak San Andres parrokian. Azitainen ez.

22. Azitaingo parrokian, hildakoen memoria omentzeko lauza bat dago

- **Erref:** EIB-700/032
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:10:07. **Bukatu:** 01:12:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Azitaingo parrokian, aldarearen aurrean, hildakoen memoriaren omenezko lauza bat dago eta meza orduetan, kandela bat pizten da gainean. Elizkizunetarako materialak sakristian gordetzen dira. Aitorlekua dago. Aste Santuan komunitate-aitortza ("Confesión Comunitaria") egiten da. On Felix Bergara abadeak jarri zuen hura martxan eta oso kritikatu izan zen.</p>

23. San Juanetan baserrian abesten den kantua

- **Erref:** EIB-700/035
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:15:06. **Bukatu:** 01:17:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

San Juan sua baserrietan pizten denean abesten den kantua kantatzen dute. Kantaren bertsio ezberdinak daude, bailararen arabera. San Juan sutan, aurreko urtean bedeinkatutako erramua erretzen zen.

24. Azitaingo abadeak

- **Erref:** EIB-700/037
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:19:18. **Bukatu:** 01:22:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Azitaingo parrokiari ezagutu zituzten abadeen izenak aipatzen dituzte: Jon Etxabe, Felix Bergara, On Martin... On Martin, Maltzagako San Rafael ermitako abadea zen, baina batzuetan Azitainen ere ematen zuen meza. Maltzagan jende asko bizi zen. Abadeek euren soldata dute. Eliztarrek borondatez ematen duten dirua ez da abadeentzat.

25. Azitaingo parrokiako loreak

- **Erref:** EIB-700/038
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:22:42. **Bukatu:** 01:24:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Azitaingo parrokiako loreak plastikozkoak izaten dira normalean, ez baita egunero zabaltzen. Hileta eta meza berezietan, ordea, benetako loreekin apaintzen da eliza.

26. Eibarren elizan dirua biltzeko atabakari "argitxakua"

- **Erref:** EIB-700/039
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:24:44. **Bukatu:** 01:25:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Elizan, meza garaian, dirua biltzeko pasatzen den atabakari "argitxakua" deitzen diote.

27. Azitaingo parrokian abadearen ordezkari emandako meza

- **Erref:** EIB-700/041
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:26:49. **Bukatu:** 01:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Dororeok eta Maria Luisak behin Azitainen elkarrekin emandako mezaren istorioa kontatzen dute. Bedeinkatutako ogiaren ordezkari, ogi zatiak banatu zituzten.

28. Maltzagako San Rafael ermita eta erromeriak

- **Erref:** EIB-700/042
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 01:28:05. **Bukatu:** 01:31:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Maltzagako San Rafael ermita "Ferrocarriles Vasconavarros" elkarteak eraiki zuen. Ermita trenbideko langileena zen. Doroteok San Rafaelen irudia nola ekarri zuten gogoratzen du. Erromerietan beti borrokak egoten ziren.</p>

29. Maltzagako eta Azitaingo erromeriak eta barkillo-saltzaileak

- **Erref:** EIB-700/044
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:32:29. **Bukatu:** 01:34:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Maltzagako San Rafael ermitako erromerietan jende asko biltzen zen. Gaur egun ez dago ia gazterik baserrietan. Aspaldi Azitainen ere erromeria egoten zen igandeetan. Maltzagan beti zegoen barkillo-saltzailea. Nolakoa zen azaltzen du Doroteok. Jai guztietan erroskillak saltzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Nora joaten zan Maltzara jentia? Trenian joango zan jentia.
- Doroteo: Ez, bertako basarritarrak. Bertako jentia. Bertako jentia, orduan

jentia zeuan... bueno, gure sasoian...! Gaur egunian be, gaur egunian be [...] egongo da, baiña basarrixetan-ta ze, nun dao gaztia? Ez dao ta. Mendigoitxin, hortxe dao gazte pillatxo bat. Bestela nun dao gazterik?

- Josean (semea): Bai, Gisasolan. Gisasolan.

- D.: Bai, baiña... Gisasolan, baiña hamen, hamen Arrate... Arrate Ballian-ta iñun be ez. Ez dao, ez da tokau ta oin ez dao gazterik. Baiña orduan, pua! Lehen esan dotena, Azittaiñen erromerixa eitten zanian, baiña zientuak jentia etortzen zan hara. Akordatzen zara, ezta?

- J.: Akordau bai, baiña...

- D.: Baiña ze izete... zapatu atsaldia-edo izango zan, ezta?

- J.: Bizperan, Andra Mari bizperan.

- D.: Ez, ez, ez, domekero, udan.

- J.: A nik ez dot ezautu hori. Udan?

- D.: Zuk ez dozu ezautu?

- J.: Baiña ze garaittan? Andra Mari jaixetan?

- D.: Ez, jairik barik, domekero [itten] zan, udan.

- J.: Ni berrogeta hamabost urteko gizon gaztia nai, e.

- D.: Jo, ta hainbeste urte dia, e? karo, igual ni soltero egongo nitzan, ta...

- Ya, bai, eske azkenian ibili gara... ez?

- D.: Karo...

- ... epoka batetik bestera...

- D.: Igual 60 urte dia igua. Iguall 60 urte dia horrena. Puo! Vete a saber.

- Ya, ya, ya. Eta saltzaille... Egoten zan holan saltzailerik edo barkillerorik edo?

- D.: Hombre, barkillerua bai, beti egoten zana. Zuek ez zarie akorda... zuek ez zenduen ezautuko. Zuek be ez? Arraten-ta ez dozue ezautu? Zerak eta rrrrrrrrra! Barkillerua ibiltzen zan barkillua saltzen, zera, bidoi bat, holako zer bat ta...

- Bai, zilindrua, ezta?

- D.: Bai, zilindro bat eta ruletia gaiñian, eta jokatu eitten zan zeozer. Tokatzen bazan, ez dakit zeoze bazekan harek misterixua, ez dakit zer baiña. Barkillero. Roskillekin egoten dian moduan. Hori bizi guztian ezautu dot nik be, roskillak saltzen jaixetan. Maltzagan-ta ez, e? baiña Arraten-ta beti. Urkiolan ta hor danetan buf, famosos.

30. San Rafaeleko erromerietan bikote ugari sortu ziren

- **Erref:** EIB-700/045
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:34:53. **Bukatu:** 01:36:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Erromerietan asko ligatzen zen. Barrundi baserrikoak eta beste hainbat San Rafaeleko erromerian ezagutu ziren. Mutilek neskak haien baserrira laguntzen zituzten.

31. Erromerietan nola ligatzen zen

- **Erref:** EIB-700/046
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:36:15. **Bukatu:** 01:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Maltzagan igandero egoten zen erromeria. Meza goizeko 7etan izaten zen. Doroteo umea zenean, ez zen mezarik ematen Azitainen. Doroteok neskei dantza nola eskatzen zitzaien azaltzen du eta Maria Luisak ezetza nola ematen zen.</p>

32. Maltzagako San Rafael ermita nolakoa zen

- **Erref:** EIB-700/047
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:38:35. **Bukatu:** 01:39:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Maltzagako San Rafael ermita oso polita zen, zuriz eta urdinez margotuta zegoen barrutik eta santuaren irudiak arrain bat zeukan.</p>

33. Maltzagako San Rafael ermitari su eman zioten

- **Erref:** EIB-700/048
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 01:39:39. **Bukatu:** 01:44:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Maltzagako San Rafael ermitari su eman zioten. Ermita non zegoen azaltzen du Doroteok. Burdinazko hesi bat zeukan sarreran.</p>

34. Maltzagako eskola

- **Erref:** EIB-700/049
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:44:30. **Bukatu:** 01:45:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Maltzagako eskolan ikasi zuen Doroteok ia 14 urte bete zituen arte. Ume asko ziren: inguruko baserritar guztiak eta trenbideko langileen seme-alabak. Hogeita hamar familia baino gehiago bizi ziren Maltzagan.

35. Aspaldiko ezkonsari bateko oihala gordeta

- **Erref:** EIB-700/052
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 01:48:55. **Bukatu:** 01:53:48

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Maria Luisak San Blas opilak amaren arreoko oihal batean batuta eramaten ditu bedeinkatzera. Oihala erakusten du. Umetan euren etxean ez zen San Blasik egiten eta gerora ikasi zuen jatekoa prestatzen eta San Blasak egiten. Oso sukaldari ona da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com